

KONTUZ EGIA ZIENTIFIKOekin

Zientzia, objektibotasuna eta ideologia

Egilea: Txemi Valdecantos

Webgunea: <http://www.gaiak.net>

2012/23/09

Zientzia ezagutza da. Hori dio latindar etimologiak bederen. Sortzen zaizkigun kezka eta zalantzei azalpen baliagarriak emango dizkion ezagutza sistema erregular bat da, hain zuzen ere. Batzuetan, iragarpenak ere egin ditzakegu zientzia erabiliz, fenomeno ezberdinen funtsa azaltzen saiatzen baita. Behin funts hori ulertuta, fenomeno horren edozein manifestaziok izango duen funtzionamendua aurreratuko diguten lege orokorrak eraikitzen dira.

Ezagutza hori orokorki onartua izateko eta, hortaz, irakasgarria izan dadin, ezagutzaile komunitate zabal batek ontzat eman behar du, elite jakitun batek alegia. Komunitate horrek, zientzia modernoari dagokionean behintzat, erabili beharreko metodologia bat ezartzen du hura onesteko ezinbesteko baldintzat: metodo zientifikoa deritzogu bide horri.

Metodo hori, bere forma anitzetan, berme bezala erabili ohi da. Izan ere, ezagutzara eramango gaituen ikerketan eman beharreko urratsak agintzen ditu: sortzen zaigun galdera bati erantzuna bilatzeko, haren nondik norakoak xehe aztertuko ditugu, behaketaren ondorioekin proposamen hipotetiko bat sortu eta sistematikoki frogatu eta ukatu beharko dugu. Ezin dugunean gehiago ukatu, hipotesia zena tesi bilakatuko da. Tesia sendoa denean, hau da, adierazitako elite zientifikoak onartu eta behin eta berriz testatu duenean, agian lege orokor ere bihur daiteke.

Giza zientziak eta naturaren zientziak

Eskuartean darabilgun ezagutza zientifikoa ez da noski besterik gabe sortzen den zerbait: giza jardura bat da. Gizakiok gure interesen arabera egiten dizkiegu galderak geure buruei eta hartzen ditugun erabaki subjektiboek garamatzate haiek ikertu eta sortzen ditugun ezagutzak pilatu, erabili zein zabaltzera. Beraz, zientzia subjektuen jardura bat izanik, hasieratik dago subjektuen beraien esanetara.

Giza zientzietan nabaria da hori. Horiek izenean daramate beren bekatua. Gizaki batek besteren batek (edo batzuek) jasan, sustatu edo bizi dituenen gaineko ikerketari ekiten dionean, goitik behera dago intentzio, aurreiritzi eta interpretazioen esparruan murgildurik. Zientzialari horren zuzentasuna bere zintzotasunean dago, eta ezabaezinak diren premisa horiek guztiak alde aurretik garbi azaltzean datza; hortik aurrera, ahalik eta ikerlan sakon, zorrotz eta argiena burutzean ere bai, jakina. Objektiboak direla esaten dutenen zientzialariek ez naiz batere fidatzen.

Ikerlari baten lana hautuz beterik dago. Historialari batek, adibidez, gertakari jakin bati buruz aritzeko, horrekiko interes bat izan beharko du, aurreiritzi bat eta hasierako ikuspegi ideologiko bat. Nahiz eta hori baztertzan saiatu, beti izango du jarrera hori abiapuntutzat, eta hartuko dituen erabaki metodologikoak eta lortuko dituen emaitzak baldintzatu egingo ditu. Badaude

baina gizakion aktibitateak zuzenki aztertzen ez dituzten zientziak ere. Subjektuen zereginetan sartzen ez badira, objektiboak izango direla pentsa genezake orduan, eta beharbada zehatzak izan daitezkeela ere bai. Denbora askoan zientzia zehatzak deitu izan zaien arren, haien doitasunak zalantza asko sorrarazten zituenenez gehienek naturaren zientziazat dituzte gaur egun, soilik matematikek mantendu dutelarik zehaztasunaren eskusiba. Hor bai, badirudi beti esan ohi denez, bi gehi bi lau direla.

Egia zientifikoa

Egia bat biribila izateko, zenbait ezaugarri izan beharko lituzke, betezinak guztiak: alde batetik osotasuna, bestetik erabateko adostasuna, eta, azkenik, betikotasuna. Edozein zientzialarik badaki nabarmenak diruditen tesiek ere ahultasunen bat dutela. Oso probabilitate altuaz beteko diren egien modukoak besterik ez dira, baina ez dira biribilak. Besteak beste ez dira betiko egia izango. Orain ziurtzat ditugun fenomenoek azalpenak eta haietatik abiatuz eraikitako legeak denborak zuzenduko ditu, behin eta berriz, Historiak dagoeneko erakutsi digun moduan. *Progresoa* deitzen diogu zientziaren ezaugarri horri, bere izaeran daraman ezaugarria baita. Giza zientzietan progresoak berebiziko pisua dauka, haien baitan indarrean diharduten arauak etengabe berrituz doaz eta, baina naturaren zientzietan ere agerikoa da aurrerabidearen garrantzia: Kepler, Einstein edo Galileori galdegin geniezaieke, edota egia egonkorrak ziruditen dogmak aldarazi zituzten gainerako fisikari, kimikari, sendagile eta abarrei ere. Egia zientifikoa gutxi, beraz. Zehaztasun handia agian bai, probabilitate oso altua ere bai, baina osotasunik inondik inora ez. Azken finean, zientziaren helburua ez da egiak bilatzea, baizik eta errealitatearen ezagutzara etengabean gerturatuz joatea.

Zientzia teorikoa, bere aplikazioa eta etika zientifikoa

Errealitatearen ezagutza hori ez du zientziak jakin-min hutsagatik bilatzen. Gizakiaren bizitza erosoago egiteko helburua dauka; beraz, teorikoki jorratzen diren gaiak egunerokotasunean aplikatzeko xedeaz lantzen dira. Teoria mailan zehatza, objektiboa eta garbia dirudien zientzia, horrenbestez, aplikatzen denean, subjektibotasunak kutsatua gelditzen da. Subjektuen bizitza errazteko funtzioa duelako, horien interesen arabera norabideak hartzen ditu. Norbaitek erabaki behar du zer ikertu, zer baztertu, zertarako ikertu edo baztertu... Norbaitek ordaindu beharko ditu ikerketak, eta inbertsioak berreskuratu, eta, beraz, emaitzekin zer egin erabaki beharko du, noraino zabaldu, noren bizitza erraztuko duten ebatzi eta norena ez... eta zientziak lortu eta sortuko dituen tesiek interes horiek guztiak irudikatuko dituzte. Ezin ahaztu, gainera, aipatu jakitun komunitate onartzailea ere subjektu erabakitzaile eta interesatuek osatzen dutela. Historia irabazleek idatzia dagoela diogunean, horri buruz ari gara, baina ez da Historia irabazleek idazten duten zientzia bakarra. Zientzia guztiak daude ideologiaren mendean, eta denek dute etikarekiko betebeharrak.

Egia zientifikoa gezurra dira, iruzurrak hobe esanda, zientzien objektibotasuna gezurra den bezala. Zientzia objektiboak aldarrikatzen dituen bere burua engainatzen ari da, edota besteren bat engainatu nahian dabil. Mapamundi batean Europa erdigunean kokatua egoteak badu bere esanahia, medikuntzaren aurrerapen nagusiak gizakion onerako izateak duen moduan, eta baita bizitzaren hasiera irudikatzeke beti espermatozoidearen adorea erabiltzeak ere.

Bi gehi bi lau dira, bai, baina hamarreko oinarria duen sistema itxi batean. Eta zein sistema erabiltzen dugun norbaitek erabaki behar du. Eta ziurrenik beste norbait ez da ados egongo. Ez du beti egon behar.